

LASARTEKO BERRITZEGUNEA 2006 /2007

MINTEGIA : IKASLE ETORKINAK EUSKALDUNTZEKO

MATERIALAK (LEHEN HEZKUNTZA)

MATERIALAREN FITXA

IRAKASLEA

Inge Arretxe Dorronsoro

IKASTETXEA

Hirukide Jesuitinak

MATERIALAREN IZENA

- Animaliak lantzeko txostena

URRATSA ETA MAILA*

Sakontze urratsa, B maila (5. maila).

HELBURUA

- Ingurunean lantzen dituzten kontzeptu garrantzitsuenak ulertzea.
- Ingurunearekin erlazionaturiko hiztegi garrantzitsuena barneratzea.

PROZEDURA

Txosten hau, gaia gela barruan lantzen hasi aurretik (hori izango litzateke egokiena) edota lantzen doazen bitartean egiteko da, liburuaren lagungarri gisa. Bertan, liburuko kontzeptu garrantzitsuenak azaltzen dira, irudi askoz lagunduta eta era sinple batean. Gaiaren inguruko ariketa erraz batzuk ere azaltzen dira.

Nahiz eta hasiera batean ikasle etorkinentzat eginak egon, hezkuntza behar bereziak dituzten haurrekin erabiltzeko ere baliagarriak direla iruditzen zait.

BALIABIDEAK

Ibaizabal argitaletxeko inguruneako liburuan oinarrituta dago guztia, beraz, liburua bera.

Urratsaren eta Mailaren sailkapena egiteko, Ima Ortega irakaslearen honako dokumentua erabili dugu : *Urrats bakoitzaren ezaugarriak eta lan egiteko oinarritzko estrategiak* (www.elkarrekin.org/elk/IEHI).

1-2 urratsei, Oinarritzko Urratsa deitu diogu eta 3-4 urratsei, Sakontze Urratsa. 1-3 mailei, A Maila izena jarri diogu eta 4-6 mailei, B Maila.

ANIMALIAK



ANIMALIEN SAILKAPENA

- Animaliak izaki bizidunak dira: jaio, hazi, ugaldu eta hil egiten dira.
- Animalien bi talde handi daude:

- **Ornogabeak:**

- Ez dute bizkarrezurrik.



- **Ornodunak:**

- Bizkarrezurra dute.



ANIMALIA ORNOGABEAK

- Ez dute bizkarrezurrik.





- 6 talde daude:


- **Artropodoak:**

- Azal gogorra dute.
- Hanka artikulatuak dituzte.
- Adibidez: erlea.



○ **Ekinodermoak:**


- Gorputza plakaz edo arantzaz estalita dute.
- Adibidez: itsas trikua.
- Izar forma  ala forma esferikoa  dute.



○ **Moluskuak:**

- Gorputza oskolez estalita dute.
- Gorputz biguna dute.
- Adibidez: barraskiloa.

oskola



○ **Harrak:**

- Gorputz biguna, luzea eta zilindro formakoa  dute.
- Ez dute hankarik.
- Adibidez: zizarea.



○ **Marmokak:**

- Aterki forma dute.
- Uretan bizi dira.



○ **Espongiarioak:**

- Gorputz biguna dute.
- Adibidez: belakia.



📖 **Lotu hiru zutabeak:**



Armiarma



Igela

Ornodunak



Marmoka

Ornogabea



Sugea

📖 *Lotu irudia dagokion taldearekin:*



armiarma

- Moluskua.



itsas izarra

- Marmoka.



muskuilua

- Harra.



zizarea

- Espongiarioa.



marmoka

- Ekinodermoa.



belakia

- Artropodoa.


ANIMALIA ORNODUNAK

- Bizkarrezurra dute.



- Ezaugarriak:


- **Barne eskeletoa** dute.
- Azala **lumaz**, **ezkatak** edo **ilez** estalita dute.



Luma




Ezkatak




Ileak

- Beste izaki bizidunetaz (**landareetaz edo animalietaz**) **elikatzen** dira.
- **Burua**, **enborra**, **sabelaldea** eta **gorputz adarrak** dituzte.



INGE ARRETXE – HIRUKIDE JESUITINAK -



- Ugalketa **sexuala** dute:
 - obiparoa (arrautzetik)



- bibiparoa (amaren gorputzetik).



- 5 talde daude:



Arrainak



Hegaztiak



Narrastiak



Ugaztunak



Anfibioak

• **Arrainak:**

- Uretan bizi dira.
- Eskeletoa dute.
- Gorputza **ezkatat** estalita dute.
- **Zakatzetatik hartzen dute arnasa.**
- Izaki bizidunak (landareak edo animaliak) jaten dituzte.
- **Obiparoak** dira (arrautzetatik jaiotzen dira).
- **Odol hotza** dute.



Arrainaren
eskeletoa



• **Anfibioak:**

- Uretan eta lurtean bizi dira.
- **Azal bustia** dute.
- Jaioberriak direnean **zakatzetatik hartzen dute arnasa**; Helduak direnean, **biriketarik eta azaletik hartzen dute arnasa**.
- Intsektuak eta zizareak jaten dituzte.
- Gorputz tenperatura inguruneke tenperaturaren berdina da. **Odol hotza**.
- **Obiparoak** dira (arrautzetatik jaiotzen dira).
- Anfibioak dira:



Igela




Apoa



Arrabioa

- Nola ugaltzen dira anfibioak?
 - Emeak arrautzak jartzen ditu (1).
 - Arrak arrautzak ernaltzen ditu (2) eta enbrioia garatzen da (3).
 - Arrautzetatik zapaburuak ateratzen dira (4, 5, 6).
 - Heltzen doazela, aldaketak izaten dituzte (7, 8, 9).
 - Heldua denean, igel bihurtzen da (10).



HIZTEGIA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- **Narrastiak:**

- Lehorrean bizi dira.
- Azala **ezkataz** estalita dute.
- **Arnasa biriketarik** eta **azaletik** hartzen dute.
- Izaki bizidunak (landareak eta animaliak) jaten dituzte.
- Gorputz tenperatura inguruneko tenperaturaren berdina da. **Odol hotza.**
- **Obiparoak** dira (arrautzetatik jaiotzen dira).



Sugandila



Krokodiloa



Kamaleoia




Sugea



Dortoka

• **Hegaztiak:**

- Gorputza **lumaz** estalita dute.
- Ez dute hortzik. Hegaztiaren ahoari **mokoa** deitzen zaio.
- **Arnasa biriketarik** hartzen dute.
- Haziak eta intsektuak jaten dituzte.
- **Odol beroa** dute.
- **Obiparoak** dira (arrautzetatik jaiotzen dira).



• **Ugztunak:**


- Emeek **bularrak** dituzte, umeei esnea emateko.
- Azala **ilez** estalita dute.
- **Arnasa biriketarik** hartzen dute.
- Elikadura mota desberdinak dituzte:
 - **Haragijaleak:** beste animaliak jaten dituzte.
 - **Belarjaleak:** landareak jaten dituzte.
 - **Orojaleak:** animaliak eta landareak jaten dituzte.
- **Ezpainak** (esnea xurgatzeko) eta **hortzak** (janaria mastekatzeko) dituzte.
- **Odol beroa** dute.
- **Bibiparoak** dira (amaren sabeletik jaiotzen dira).

INGE ARRETXE – HIRUKIDE JESUITINAK -

Bularrak



Ezpainak



Hortzak



Balea



Pertsonak



Katua

📖 *Zein da haragijalea? Eta belarjalea? Eta orojalea?*



.....



.....



.....

 *Jarri gurutze bat dagokion lekuan:*

		<i>Arrainak</i>	<i>Anfibioak</i>	<i>Narrastiak</i>	<i>Hegaztiak</i>	<i>Ugaztunak</i>
<i>Odola</i>	<i>Beroa</i>					
	<i>Hotza</i>					
<i>Ugalketa</i>	<i>Obiparoa</i>					
	<i>Bibiparoa</i>					
<i>Azalean</i> ...	<i>Luma</i>					
	<i>Ezkata</i>					
	<i>Ilea</i>					
<i>Arnasa hartu</i>	<i>Biriketatik</i>					
	<i>Zakatzetatik</i>					
	<i>Azaletik</i>					

 *Zein da zein?*

- 1. Uretan eta lurlean bizi dira. Azal bustia dute. Jaioberriak direnean zakatzetatik hartzen dute arnasa, baina helduak direnean biriketatik eta azaletik. Odol hotza dute eta obiparook dira.*

.....

- 2. Gorputza lumaz estalita dute. Arnasa biriketatik hartzen dute. Odol beroa dute eta obiparook dira.*

.....

INGE ARRETXE – HIRUKIDE JESUITINAK -

3. Gorputza ezkataz estalita dute. Zakatzetatik hartzen dute arnasa. Odol hotza dute eta obiparoak dira.


.....


4. Azala ilez estalita dute. Arnasa biriketatik hartzen dute. Odol beroa dute eta bibiparoak dira.

.....

5. Azala ezkataz estalita dute. Arnasa biriketatik eta azaletik hartzen dute. Odol hotza dute eta obiparoak dira.

.....



 **Zein animalia dago soberan? Borobildu gorriz.**